



GRIALEKO KOFRADIA

Iñigo Quesada Mentxakaren moldapena

Pere Roig / Jordi Font

Desclée De Brouwer



I

Bigarren Hezkuntzako institutuko pasabideetan barrena txirrina zaratatsuak burrunbatu zuen klase amaiera iragarritz.

Aitaren batean, kalea liburuz eta motxilaz zamatutako gaztez bete zen. Batzuk korrika, beste batzuk berbatan. Batzuk bikoteka, eta beste batzuk itzurtzen gainontzekoengandik. Aldi berean gaueko txandaren ikasleak kontrako norabidean heltzen ari ziren.

Liburutegian, Garikoitzek buru-belarri irakurtzen jarraitu zuen. Zaintzan zegoen irakasleak ikusi zuenean ikusgura piztu zitzaion, liburutegian Garikoitz bakarrik gelditzen zen eta.

—Bostak dira. Ez zara lagunekin joango, ala?

—Txirrinak jo ote?

—Bai ba! Zer irakurtzen ari zara? Interesgarria ematen du.

Garikoitzek liburuaren azala erakutsi zion. Luxuzko edizioa zen, azal gogorrekoa eta, argazki



eta lamina ugari zekartzan. Horrexegatik ezin eramane zezakeen etxera eta liburutegian irakurri behar.

—Arranopola! Amadis de Gaula. Hau istorio polita!!

—Itzela!

—Zalduntzari buruzko liburuak gustukoak dituzu?

—Ea gustatzen zaizkidan? Denbora-makina bat izango banu zaldunen arteko lehiaketa batean parte hartuko nuke eta, lantza eta armadura erabili, eta zaldi zuria zamalkatu...

—Hainbeste irudimen edukitzeari ondo deritzot motel, baina liburutegia itxi behar dut.

—Eta nik saskibaloi entrenamendura joan behar dut.

Kiroldegirantz zihoala, Garikoitzen irudimena ohore eta abenturen bila zihoan zaldun ibiltari bihurtuz. Bere bidean haserre antzean zetorren mutil bat topatu eta, etsai ankerra bilakatuta, nola ez, ezpataren ziztada trebe batez lurrera erori zen nagusiturik. Ondoren, aurrean zeukan etxegintzarako erabiliko zen haremeta mendi-bizkarra zela begitandu zitzaion. Mendi-bizkar horretatik Gari-



koitzek zaldunak garaitu eta ihes eragin zien berari jarraitzen zioten sarrazenoei. Aldagelan sartu zenean, entrenatzailearen deiadarrak errealitatera itzularazi zuen trantsiziorik gabe.

Garikoitz behin eta berriro itzuli zen liburutegira Amadis-en abenturak gogotik irakurtzeko. Hartara, bere irudimena aberasten joan zen liburuaren irudiak ikusi ahala.

Baina arratsalde batean, liburuaren bila joan zen, eta hura izan zen bere ustekabea, apalean ez zegoela konturatu zenean. Liburutegiko mahai guztiak gainbegiratu ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako ikasle bat irakurtzen ari zela egiaztatu zuen. Mutikoa luzea, oso argala eta adats oparo eta luzekoa zen. Musturtuta, liburu lapurtu baliote bezala, Garikoitz gaztea jesarrita zegoen mahaira hurbildu zen.

—Kaixo! Oker ez banago, liburu honen atzetik zabilta —esan zion mutikoak itxaroten egon baltzaio bezala.

—Bai.

—Noraino irakurri duzu?

—Amadisek Arcalaren enkantamenduetatik ihes egin du eta Gandalin, ipotxa, ehun eta hama-



bost gatibu eta hogeita hamar zaldun askatu ditu
—erantzun zuen Garikoitzek.

—Irakurtzen duzun zalduntzari buruzko lehenengo liburua da?

—Ez, Arturo erregearen historia, Lantzaroterena eta Grialen bilarena ere irakurri ditut.

—Liburu hau buru-belarri irakurtzen duzula sumatu dut —esan zuen mutikoak—. Zaldun ibiltarien lagunen kofradia bat ezagutzea gustatuko litzaizuke?

—Ez da izango! Badago hoalako kofradiarik ala? —Poz handia nagusitu zen Garikoitzen go-goan—. Eta zer egin behar dut kofradia horretan sartzeko?

—Beno, ez da batere erraza. Isilpeko elkarte bat da, eta ni kidea naiz. Zuri buruz mintzatuko naiz gainerakoekin, baina zin egin behar didazu ez diozula inori ezer esango.

Garikoitzek zaldunen zina gogoratu zuen eta hasi zen:

—Zin egiten dut...

—Ez, ez da beharrezkoa. Momentuz zure hitza nahikoa da, baina onartzen bazaitugu taldearen aurrean benetako zina eskatuko dizugu.